

BILBOKO PORTUKO AGINTARITZA

BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN ADMINISTRAZIO BATZORDEAREN EBAZPENA, BILBOKO PORTUAN SALGAI ARRISKUTSUAK GARRAIATZEN DITUZTEN EDO APARTEKO EGOERAK DITUZTEN ITSASONTZIETARAKO ATOIONTZIAK ERABILTZEKO IRIZPIDEEI BURUZKOA.

Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Batzordearen 2015eko abenduaren 17ko bilkuran, Bilboko Itsas Kapitaintzaren 2015eko abuztuaren 13ko jakinarazpenaren (2015eko abenduaren 17ko jakinarazpenaren bidez aldatutakoa) edukiaren aldeko txostena egin zen, hain zuzen ere "*Bilboko portuan salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten edo aparteko egoerak dituzten itsasontzietarako atoiontziak erabiltzeko irizpideei*" buruzkoa. Irizpide horiek Itsas Administrazioak ezarri ditu, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onesten duen Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategineko 266.4 d) eta 112.1 artikuluek administrazio horri aitortzen dizkieten eginkizunen babespean. Bilboko Portuko Nabigazio eta Portuko Batzordeak, besteak beste, azertu ditu alde zuzenetik, eta, ondorioz, Bilboko Portuan salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten edo aparteko egoerak dituzten itsasontzietarako gutxieneko atoiontziak erabiltzeko derrigorrezko betebeharra ezarri da. Horretarako, Handitze dartsena, Santurtzi dartsena eta Itsasadarra deritzen portuko hiru guneri eragiten dieten kokapen-irizpideak hartu dira kontuan, eta erabili beharreko atoiontzien gutxieneko kopurua ezarri da itsasontziaren luzeraren eta haizearen indarraren arabera. Horrez gain, irizpide horiek Bilboko Portuko polizia eta ustiapen arloan indarrean dagoen araudiari gehitzeari buruz Itsas Administrazio horrek aurkeztutako proposamenaren aldeko txostena egin da.

Horrenbestez, Bilboko Portuko Agintaritzaren gobernu-organoak, 2/2011 Legegintzako Errege Dekretu horren 25. artikuluko a) eta h) ataletan eta 26. artikuluko b) eta j) ataletan aurreikusitako eginkizun eta eskumenen babespean, honako hau onetsi du aho batez:

1.- 2015eko abuztuaren 13an Bilboko Itsas Kapitaintzak Bilboko portuan salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten edo aparteko egoerak dituzten itsasontzietarako atoiontzien erabilerari buruz ezarritako irizpideei arrazoia ematea (2015eko abenduaren 17ko jakinarazpenaren bidez aldatutakoak), eta irizpide horiek Bilboko Portuko polizia eta ustiapen arloan indarrean dagoen araudiari gehitzea, ebazpen honen Eranskinean ezarritakoaren arabera.


2º.- Aipatutako irizpideak Estatuko Aldizkari Ofizialean eta erakundearen Egoitza Elektronikoa argitaratzea.

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea aldatu duen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 109. artikuluko c) atalean xedatutakoari jarraiki. Haren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, aipatutako legearen 117. artikulua arabera, edo zuzenean administrazioarekiko auzien errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, interesdunari ebazpen honen berri eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 8-3. artikuluetan, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1 m) eta 46. artikuluei dagokienez.

Santurtzin, bi mila eta hamabosteko abenduaren hamazazpian,

Presidentea
Asier Atutxa Zalduegi

Idazkaria
Juan Carlos Verdeal Pinto



ERANSKINA:

BILBOKO PORTUAN SALGAI ARRISKUTSUAK GARRAIATZEN DITUZTEN EDO APARTEKO EGOERAK DITUZTEN ITSASONTZIETARAKO ATOIONTZIAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

Handitze dartsena

Luzera osoa, LOA (m)	Atoiontzien gutxienerako kopurua
≥ 115 < 150	Eskolta bat (*) ≥ 25 korapiloko haizea baldin badago Eskolta bat (*) ≥ 33 korapiloko haizea baldin badago
≥ 150	1

Santurtzi dartsena

Luzera osoa, LOA (m)	Atoiontzien gutxienerako kopurua
≥ 100 < 130	Eskolta bat (*) ≥ 25 korapiloko haizea baldin badago Eskolta bat (*) ≥ 33 korapiloko haizea baldin badago
≥ 130 < 180	1
≥ 180	Eskolta bat (bi eskolta (*) ≥ 27 korapiloko haizea baldin badago)

Itsasadarra

Luzera osoa, LOA (m)	Atoiontzien gutxienerako kopurua
≥ 100 kargarekin ≥ 125 lastan	1

(*) *Haize arrunta*

Kapitainak praktikoaren irizpideei jarraitzen ez badie, eta, bere erabakiaren ondorioz, taula hauetan ezarritako atoiontzien gutxienerako kopurua betetzen ez bada, Itsas Kapitaintzari berehala jakinaraziko zaio, Bilboko Salbamendua Kontrolatzeko Eskualdeko Zentroaren bitartez. Portuko Agintaritzari ere horren berri emango zaio, Larrialdiak Kontrolatzeko Zentroaren bidez.